

LAUGARREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

ENTZUMEN-PROBA

1. ABIZENA _____	2. ABIZENA _____
IZENA _____	NAN zk. _____
AZTERKETA-EGUNA _____	AZTERKETA-TOKIA _____

Probaren ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p>ENTZUMEN-PROBA</p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</p> <p>Hiru entzungai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</p> <p>Entzungaien iraupena guztira: 15 min. gehienez.</p>	40-45 min.	20	10

- Irakurri atal bakoitzean datozen argibideak eta egin jartzen duena.

4. HE

ENTZUMENA

■ 1. ariketa: aukera anitzeko galderak

Ondoren, Andoni Egañak telebistaz hitz egingo digu.

- Entzuten hasi aurretik 2 min. dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min. duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean has zaitezke erantzuten.

1. Zerk harritu zuen Egaña?

- a) Programa bati freskoa izena jarri izanak.
- b) Programa baten ezaugarri positibotzat freskotasuna hartu izanak.
- c) Freskotasuna eta parrillaren berotasuna elkartu izanak.

2. Zer ekartzen dio gogora “freskoa” hitzak Egañari?

- a) Amaren hitz kuttunetako bat, zernahitarako erabiltzen zuena, alferrik baina.
- b) Betidanik, ironiaz edo kontrakoa adieraziz, amari entzun dion hitza.
- c) Gustuko ez duen hitza; gustuko ez zuen fruta edo beste zernahi jatera behartu nahi zituenean beraien amak sarri erabiltzen zuena.

3. Nolako saioak espero zituen Egañak “freskoa” izenlagunaren pean?

- a) Usteak betetzeko moduko saioak.
- b) Ganberrokeriaz betetako saioak.
- c) Aurrelanketarik eta graziarik gabeak.

4. Zer egiten zuen programa mota horrek?

- a) Platoko errealitate narrasa eraldatu.
- b) Etxeetako errealitatea platora eraman.
- c) Platoan errealitatea sortu eta hori eskaini.

5. Zer eragiten du telebistan agertze hutsak?

- a) Edonor nor izatea.
- b) Agertze hutsak ezer ere ez.
- c) Protagonista maila ematen dizu.

6. Zer egin dute ETBn urte hasieran?

- a) Elkarren izenak aldatu.
- b) Programa batekoek beste programa batekoak eraman.
- c) Gonbidatu berak programa batetik bestera eraman.

7. Nolako telebista nahi du Egañak?

- a) Herria txikia garenez, txikia eta erkina.
- b) Herriaren isla izango den telebista.
- c) Herriaren neurrikoa, endogamikoa.

8. Zer eragin du telebistak gizartean?

- a) Direnak eta ez direnak agertzea.
- b) Inork telebistan agertu nahi ez izatea.
- c) Galtzeko sentsazioa areagotzea.

9. Aterki-programek zer zaparrada motatik babesteko erabiltzen dira?

- a) Kritika-zaparradatik babesteko.
- b) Telezabor-zaparradatik babesteko.
- c) Originaltasun-faltaren zaparradatik babesteko.

4. HE

ENTZUMENA

■ **2. ariketa: aukera anitzeko galderak**

Miren Iturriotzek Errobi ibaiaren inguruko kontuez hitz egingo digu.

- Entzuten hasi aurretik 2 min. dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min. duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

1. Nork sortu zuen Mirenek lan egiten duen sindikatua?

- a) Angelu, Biarritz eta Baionako hautetsiek.
- b) Errobi errekaaren egoerak kezkatzen dituen herritarrek.
- c) Errobiren arroko hautetsiek.

2. Zer zeregin ditu sindikatuak?

- a) Errobiko hautetsien egitura komuna sortzea.
- b) Errobiko erreka uren banaketa eta ustiapena mantentzea.
- c) Edateko ur-hornidura segurtatzea eta ur-kalitateaz arduratzea.

3. Aurrekoez gain, beste zer zeregin du sindikatuak?

- a) Erreka zaintzea, behatzea eta lehengoratzea.
- b) Errekako ibilbide osoan segurtasuna mantentzea.
- c) Errekako ur guztia edateko ur bihurtzea.

4. Zer eragin du errekaaren azterketak?

- a) Arro osoan zehar bainua debekatzea eta ura edateko modukoa bihurtzeko, tratamendu oso gogorra erabiltzea.
- b) Urak pilatzea eta bakterioak aztertzea.
- c) Ustaritz inguruko herrietan bainua debekatzea.

5. Zergatik dago kutsatuta Errobi?

- a) Errekaren goialdeko ustiategiek nekazaritza-produktuek isurtzen dituztelako.
- b) Etxeetako ur araztu gabea da kutsaduraren erantzule.
- c) Arazoaren diagnosi txarra: araztegiez gain, etxeetan kontzientzia ekologikoa falta da.

6. Zer egin du orain arte sindikatuak?

- a) Ura erabiltzen duten herriekin elkartasun-markoa eratu.
- b) Uraren kalitatea guztiz berreskuratu.
- c) Goialdeko herriei dirua bideratu araztegiak egin ditzaten.

7. Zer lortu dute elkartasun-markoari esker?

- a) Ustaritzen eta Baiona-Angelu-Biarritzen arteko elkarlana adostea.
- b) Ibilguaren goiko aldeko herriei araztegiak jar ditzaten laguntzak bideratzea.
- c) Sindikatu bat eratzea, goialdeko herriei laguntzeko.

4. HE

ENTZUMENA

■ 3. ariketa: aukera anitzeko galderak

Ondoren, bi aldiz entzungo duzu Joseba Otaegi aizkolariari egindako elkarrizketa.

- Entzuten hasi aurretik 2 min. dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min. duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean has zaitezke erantzuten.

1. **Zer lortu dute aizkolariek?**
 - a) Sailkatzeko aukera.
 - b) Finalerako txartela.
 - c) Txapela.
2. **Nola jardun du lanetan aizkolari bikoteak?**
 - a) Espero baino hobeto.
 - b) Nahi bezain gustura.
 - c) Gusturago jardun nahi zuen.
3. **Zerk eragin die jardun duten moduan jarduteak?**
 - a) Bikotearen konfiantza faltak eta telebistak.
 - b) Bikotea hotzak izatea.
 - c) Atzeraka jardun behar izateak.
4. **Zertara behartzen ditu telebistak aizkolariak?**
 - a) Txanda librean jardutera.
 - b) Ikusleen mesedetan modu jakin batean hasi eta amaitzera.
 - c) Jende aldera begira hastera eta atzeraka amaitzera.
5. **Zergatik kostatu zaie asko egurra partitzea?**
 - a) Kontra eran jardun dutelako.
 - b) Bikotea gerriko minez zelako.
 - c) Egurra hotza zegoelako.
6. **Zein partetan ez dute jardun nahi bezain ondo?**
 - a) Lehen zatian.
 - b) Aurreneko erdian.
 - c) Txanda librean.
7. **Zerk eragin die aizkolariei gora etortzea?**
 - a) Beste bikotea lehen zatian makal zebilela ikusteak.
 - b) Aurreneko erdian lan gehiago izanda ere, beste bikoteari eusteak.
 - c) Zati bietan maila onean jardun izanak.
8. **Zergatik ez da ona hotza era horretako aizkora-probetan?**
 - a) Probak oso luzeak direlako eta gorabehera handikoak.
 - b) Probak etenak dituelako eta hotz geratzeko arriskua dagoelako.
 - c) Aizkolariek ez direlako beroketak ondo eginda hasten.
9. **Zer dio beste finalaurrekoko aizkolariez?**
 - a) Finalaurrekoetara iritsi direnen artean ez dela bikote bat beste bat baino txarragorik.
 - b) Puntu horretara heltzeko merituek denek egin dituztela; baina finalari ekiteko, agian denak ez daudela sasoi berean.
 - c) Finala jokatzeko moduan dauden hiru bikoteen artean, ez dagoela alderik.

4. HE / ENTZUMENA

ERANTZUN ZUZENAK

- 1. ariketa: aukera anitzeko galderak
- Entzugaia: Telebista (EGAÑA)

1.	B	6.	B
2.	C	7.	B
3.	C	8.	B
4.	C	9.	A
5.	A		

- 2. ariketa: aukera anitzeko galderak
- Entzugaia: Errobi

1.	C	5.	B
2.	C	6.	A
3.	A	7.	B
4.	A		

- 3. ariketa: aukera anitzeko galderak
- Entzugaia: Joseba Otaegi (Hiru erregeen mahaia)

1.	B	6.	C
2.	C	7.	B
3.	A	8.	B
4.	B	9.	C
5.	A		